

Batxilergoko 2.mailako Geografia PROGRAMAZIO LABURRA

| | | | | | |
|-----------|-----------------|-------|--------------|------------|---------|
| Irakaslea | Andoni Otamendi | Maila | Batx 2.maila | Ikasturtea | 2020/21 |
|-----------|-----------------|-------|--------------|------------|---------|

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

- Hautazko ikasgaia da, astean 4 orduz ematen dena.
- Letretako adarretik joaten den ikasle orori eskaintzen zaio.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailera, kontzientzia eta adierazpen kulturalak. Informazio gehiagorako: <https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2015/127/> (3.orrialdea, 5. artikulua)

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

1. GEOGRAFIA ETA ESPAZIO GEOGRAFIKOAREN IKASKUNTZA
2. ESPAINIAKO ERLIEBEA, HAREN ANIZTASUN GEOMORFOLOGIKOA
3. ANIZTASUN KLIMATIKOA ETA LANDAREDIA
4. HIDROGRAFIA
5. NATUR PAISAIK ETA NATURAREN ETA GIZARTEAREN ARTEKO LOTURA
6. ESPAINIAKO BIZTANLERIA
7. LANDA ESPAZIOA ETA LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK
8. ENERGIA-ITURRIAK ETA INDUSTRIARAKO ESPAZIO
9. ZERBITZUEN SEKTOREA
10. HIRI ESPAZIOA
11. LURRALDEA ANTOLATZEKO MODUAK
12. ESPAINIA EUROPAN ETA MUNDUAN

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

| 1. Ebaluazioa | | 2. Ebaluazioa | | 3. Ebaluazioa | |
|---------------|--|---------------|--|---------------|---|
| Orduak | Unitateak | Orduak | Unitateak | Orduak | Unitateak |
| 12 | Iberiar Penintsulako eta irltako geomorfologia | 8 | Ekogeografia eta ingurugiroa. | 12 | Bigarren sektorea |
| 8 | I. Penintsulako eta irltako klimatologia | 8 | Espainiako biztanleria. | 12 | Hirugarren sektorea |
| 8 | I. Penintsulako eta irltako hidrogeografia | 8 | Hiri sistema. Nafarroako eta Espainiako lurralde antolaketa. | 14 | Nafarroa eta Espainia nazioarteko testuinguruan. Europar Batasuna |
| | | 12 | Lehenengo sektorea. | | |

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Erabiliko den metodologia mistoa izango da: alde batetik irakasleak Unitate bakoitzaren aurkezpena eta azalpena burutuko du eta, beste aldetik, ikasleriak bere ezagutzak eraiki, erabili eta azaldu behar ditu eta horretarako lan praktikoak -komentarioak, sintesiak, edo txostenak- eginen ditu: mapak, grafikoak, estatistikak, taulak, planoak, krokisak, eskemak, hiztegia...
- Ikasturtearen eta ikaslegoaren martxaren arabera moldaketak egin daitezke eguneroko metodologiari dagokionez.
- MATERIALA: Ariketak, eskemak eta abar egiteko orriak/koadernoak.. Irakasleak emandako materiala. Prentsa. Eguneroko egunkaria eta aldizkariak. Urtekariak. Internet .

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Bi oinarrien gainean ebaluatuko ditugu ikasleak: azterketa frogak zehatzen bidez batetik; eta beraiek egindako lanaren gainean, bestetik. Ebaluazioa sistema azterketaren bidezkoa izanen da. Azterketek izanen dute notan pisurik handiena, ebaluazio bakoitzeko azterketa bakarra egonen da eta alde zurratik irakasleak azterketa motaren berri emanen die ikasleei.

Azterketak: %90

Lanak eta jarrera: %10

Beti ere, azterketa proba bakoitzean gutxienez 4 puntu atera behar du ikasleak batez bestekoa egin ahal izateko.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Eskatutako lan guztiak jarritako epean aurkeztu beharko dira; garaiz ez aurkezteak notan jaitsiera ekarriko du.

Sakelako telefonoak institutuan debekatuta dagoenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat jaitsiko dio ikasleari ebaluazioan

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENENKOAK

Gelan, planteamendu ezberdinen iruzkinak egiteko prozedurak landuko ditugu. Ostera, ikasle bakoitzak hainbat adibide eginen ditu ikasturtean zehar eta ezarritako epean irakasleari entregatuko dizkio.

Erredakzioak/azterketak/eskemak bildu behar dituen ezaugarriak:

- Margenak, puntu, komak..
- Ideiak sailkatu hierarkiaren arabera: esaldi koherenteak, paragrafo ezberdinak...Idea nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztu. Eskema zenbakitua baliabide ona da.
- Garapenaren batasuna eta koherentzia. Barneko logika. Hasiera, mamia eta ondorioa elkarlotuak egonen dira, oso inportantea da hiru atalak agertzea. Laburtzea atal bakar baten garapen zabala baino emaitza hobetoagoak ematen ohi ditu. Ez utzi erdizka erantzuna.
- Letra: txukuna. Hizkuntza: aberatsa eta heldutasuna adierazten duena.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Suspenditutako ebaluazioa errekupeartzeko, hurrengo ebaluaketan zehar, ikasleriak landutako edukiak biltzen dituen azterketa bat eginen du, honen balioa %100a izango da.

- Azterketa honetan 7 baino nota baxuagoa ateratzen bada, nota 5 izango da.
- Azterketan 7 baino nota altuagoa ateratzen bada, azken hau izango da gordeko dena.

- 5etik beherakoa bada, ateratako nota hori ebaluazioko nota baino altuagoa bada, hori mantenduko zaio.

Maiatzan, ikasleek suspendituta dauden ebaluazioak errekuperatzeko aukera izanen du azterketa baten bidez, balioa %100 izango da. Azterketa hau gaitzen bada, nota 5 izanen da.

Ekainean (ez ohiko deialdia), ikasgaia berreskuratzeko haren eduki guztiak bilduko dituen azterketa bat egin beharko du, errepasso klaseen ondoren. Proba honen balioa notaren %100a izanen da.

OHARRA: hasierako antolaketa besterik ez da hau eta malgutasunez aplikatuko da. Kurtsoan zehar aldaketak egin daitezke horretarako beharra ikusten bada

KANPOKO EBALUAZIOA

| | | | | | | | | | | |
|---|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| - | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| • | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| • | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| • | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

| |
|--|
| |
| |
| |